



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!”

2023ko abuztuaren 13a
Urteko 19. igandea (A)

Mateo 14, 22-33.

Berehala, Jesusek ikasleak txalupan sarrarazi eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendeari agur egin ondoren, mendira igo zen, bakardadean otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik.

Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, uhinek astindua, haizea kontra baitzuen. Goiz aldera, ikasleengana joan zen Jesus, ur gainean oinez. Aintziran ibiltzen ikusi zutenean, ikasleak izutu egin ziren, mamuren bat zelakoan; eta beldurraren beldurrez oihuka hasi ziren. Baina Jesusek berehala hitz egin zien eta esan: Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!

Orduan, Pedrok esan zion: Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko.

Jesusek erantzun: Zatoz.

Pedro untzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion, eta, hondoratzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: Jauna, salba nazazu.

Jesusek eskua eman eta heldu egin zion, esanez: Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?

Txalupara igo zirenean, haizea baretu egin zen. Eta untzian zeudenak Jesusen aurrean ahozpezi jarri ziren, esanez: Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!

Orduan, Pedrok esan zion: Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko.

BELDURRAK JO DU ELIZA

José Antonio Pagola

Galileako aintzira inguruko bere joan etorriez baliatuz, Jesusek, segur aski, bere ikasleak hezteari ekin zion etorkizuneko arrisku handiagoko ekaitzei aurre egiteko gai izaten zitezen. Mateok orain pasadizo horietako bat «landu» nahi du, bere garaiko kristau-elkarteei beren «beldurretik» eta «fede eskasetik» liberatzen laguntzeko.

Bakarrik daude ikasleak. Oraingo honetan Jesus ez dute berekin. Haien ontzia «lehorretik oso urrun dago», Jesusengandik urruti, eta «kontrako haizeak» ez die uzten itzultzen. Ekaitzaren baitan bakarrik, zer egin Jesus gabe?

Etsitzekoa da ontziaren zoria. «Gauaren» ilunaz mintzo da Mateo, «haizearen indarrak», «uretan hondoratzeko» arriskuaz. Mateo, bere irakurleek ezaguna duten biblia-hizkuntza horretaz baliatuz, kristau-elkarte haien egoera deskribatuz doa: kanpoko ukapenaren eta etsaigoaren mehatxupearan ikusi ditu, eta barrutik beldurraren eta sinesmen epelaren tentaziopearan. Ez ote da hori bera, gaur egun, gure egoera?

Goizeko hirurak eta seiak bitartean, «Jesus hurbildu zaie ur gainean ibiliz», baina ikasleak ez dira gai hura ezagutzeko. Jesus «mamutzat» hartzera eragin die beldurrak. Beldurra da eragozpenik handiena Jesusi «Jainkoaren Semetzat» hartu, maitatu eta jarraitu ahal izateko, hura estualdian lagun eta salbatzaile dugula ezagutzeko.

Entzun beharra duten hiru hitz esan dizkie Jesusek: «Aupa, neu naiz, ez beldur izan». Bere indarra eman nahi die, bere segurtasuna, Aitarekiko bere konfiantza osoa. Pedro izan da erreakzionatzen lehena. Haren jarduera, kasik beti bezala, aldi berean, konfiantzazko buru-etsaintzaren eredu da eta beldurraren eta fede eskasaren etsenplu. Seguru dabil ur gainean, baina «beldurrak jo du» gero; uste osoz abiatu da Jesusengana, baina ahaztu egin da gero haren hitzaz, haizearen indarra sentitu du eta «hondoratzen» hasi da.

Jesusen Eliza beldurrak jo du eta ez dakigu nola liberatu hartatik. Beldurra diogu izen txarrari, boterea galtzeari, gizartearen ukoari. Bata bestearen beldur gara: hierarkiak gogortu egin du bere hizkuntza, teologoen askatasuna galdu dugu, artzainek nahiago dute arriskuari ihes egin, fededunak etorkizunaren beldur dira. Beldur hauen guztien hondoan Jesusekiko beldurra dago, harekiko sinesmen eskasa, haren



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

urratsei jarraitzeko nagikeria. Jesus bera datorkigu lagun fedea aurkitzeko: Bai fede eskasa! Zergatik hartarainoko duda?